



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

GIPUZKOAKO HAGINLARIEN ELKARGOAK EGINDAKO KONTSULTA HONI BURUZKO TXOSTENA: "HORTZ-KLINIKA SOLIDARIOA" ABIAN JARTZEKO.

Esp.: 140

Gipuzkoako hortz-klinika solidarioa

Aurkibidea

I. Aurrekariak.....	1
II. Aztertutako jardun honek lehiari jar diezazkiokeen mugak.....	2
1. Ez diskriminatzeko printzipioa.....	3
2. Beharrezkotasun-printzipioa	3
3. Proporzionaltasuna	4
III. Ondorioak.....	5

Osoko bilkura:

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, batzordeburua

Natividad Goñi Urriza, batzordekidea

Rafael Iturriaga Nieva, batzordekidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

Lehiaren Euskal Agintaritzaren Osoko Bilkurak, arestian aipatutako osaera duenak, Gipuzkoako haginlarien Elkargoak egindako kontsultari buruzko txosten hau, Hortz-Klinika Solidarioa abian jartzeko kontsulta, 2015eko irailaren 21eko bileran ebatzi du.

I. Aurrekariak

1. Gipuzkoako Haginlarien Elkargoak Lehiaren Euskal Agintaritzari (LEA) kontsulta bat egin dio jakiteko "Hortz-klinika solidario" bat abian jartzeak lehia-arazorik lekarkeen.



Elkargoaren ekimenak, Caritasekin elkarlanean arituta, baliabide ekonomikorik gabekoei hortz-zerbitzuak eskaintzea du helburu, prezio sinboliko batean.

2. Jarduera hori Gipuzkoako Haginlarien Fundazioaren bidez egitea proposatzen du elkargoak (fundazioak eta elkargoak egoitza bera dute).

Elkargoak elkargokide guztiei emango die aukera ekimenean parte hartzeko. Eskutitz pertsonal baten bidez emango die ekimenaren berri.

Hauek dira ekimenaren funtsezko osagaiak:

"- Gipuzkoako Caritasek hautatuko ditu pazienteak.

- Odontologia kontserbatzailea, endodontziak eta periodontziak egingo dira. Hasiera batean ez da aurreikusi hortz-protisirik jartzea, ez tratamendu ortodontzikoaren protisirik ez hezurrean sartutako inplanterik. Gerora balioetsiko da hori egitea, baliabideak badauden ikusita.

- Ez dira artatuko Caritasen bidez odontologia-zerbitzu solidarioa eskaintzen ari diren probintziako beste klinika batzuetan tratatzen ari diren pazienteak. Pazienteei beste norbaitekin etortzeko eskatuko zaie.

- Edozein pazienteri emango zaio urgentziatzko tratamendua, beste klinika solidario batean tratatzen aritu edo ez.

- Proiektu honetan sartzen diren dentistak modu altruistan arituko dira, eta dedikazioa, berriz, proiektu honetan parte hartuko duten boluntario-kopuruaren araberakoa izango da.

Elkargoak konpromisoa hartu du egutegi bat egiteko; hor jasoko dira, behar besteko aurrerapenez, proiektuan zer dentistek parte hartuko duten eta libre noiz dauden.

- Higienista bat kontratatuko da. Hark kudeatuko ditu kontsultak, bai materialei, bai antolaketari eta abarri dagokienez. Higienista horrek etengabeko dedikazioa izango du, eta, horrenbestez, soldata ordainduko dio Gipuzkoako Haginlarien Fundazioak.

- Bisitako, prezio bakar bat izango da: 12 €, tratamendua edozein dela ere".

II.- Aztertutako jardun honek lehiari jar diezazkiokeen mugak.

3. Hau da aztertzeko aurkeztu den proposamena: elkargo profesional jakin bateko profesionalek oinarrizko hortz-zerbitzuak eskaini nahi dituzte, txandaka antolatuta eta zerbitzuengatik prezio finko bat eskatuta. Pazienteak ez dituzte dentistek hautatuko, eta nahi duen orok ere ezingo du parte hartu; Caritasek hautatuko ditu pazienteak. Antzeko ezaugarriak dituzten beste klinika batzuetan artatzen ari diren pazienteak ez tratatzeko konpromisoa hartu da, urgentziatzko kasuetan izan ezik.



Egoera horiek guztiek gorabeherak eragiten dituzte merkatuan, eta, horrenbestez, zer helburu lortu nahi den aztertu behar da, beharrezkoa eta proportzionala den jakiteko.

4. Zerbitzuen Eskuragarritasun- eta Erabilera-askatasunari buruzko 17/2009 Legeak ezartzen du zerbitzuak lehiari murrizketarik jarri gabe eman behar direla, hauek egiaztatzen diren kasuetan izan ezik¹:

- **Diskriminaziorik eza**, nazionalitatea dela-eta edo enpresaren kokapen edo helbide soziala dela-eta.
- **Beharrezkotasuna**: esan nahi da lehiari ezarritako mugak justifikatuta daudela ordena, segurtasun eta osasun publikoko arrazoiengatik edo ingurumena babestearekin lotutako arrazoiengatik, edo baliabide naturalen eskasiak edo arrazoi tekniko zalantzagabeek merkatuko eragile ekonomikoen kopurua murrizten dutelako.
- **Proportzionaltasuna**: mugaketa dela tresnarik onena, bilatzen den helburua lortu ahal izateko, ez baitago emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen hori baino murrizketa-maila leunagorik duen neurririk.

Diskriminaziorik ezaren, beharrezkotasunaren eta proportzionaltasunaren baldintzak betetzen ez dituzten lehiari jarritako mugak eragozpen dira zerbitzuak libreki emateko, eta, ondorioz, traba, benetako lehia izateko merkatu jakin horretan.

1. Ez diskriminatzeko printzipioa.

5. Kasu honetan, ez dago diskriminaziorik, ez zerbitzua emango dutenen nazionalitateagatik, ez establezimenduaren kokagune edo egoitza sozialarengatik, sisteman elkargokide diren dentista guztiek hartu baitezakete parte (elkargokide izatea, jakina, nahitaezkoa da).

2. Beharrezkotasun-printzipioa

6. 17/2009 Legearen 5. artikulua arabera, beharrezkotasunak esan nahi du lehiari jarritako muga bat justifikatu egiten dela arrazoi hauetakoren bategatik: ordena, segurtasun eta osasun publikoarekin edo ingurumena babestearekin lotutako arrazoiengatik, edo baliabide naturalen eskasiaren ondorioz edo

¹ Zerbitzuen Eskuragarritasun- eta Erabilera-askatasunari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 5. artikulua (2009ko azaroaren 24ko BOE, 283 zk.). Merkatu-batasuna bermatzeko abenduaren 9ko 20/2013 Legeak emandako idazketa (2013ko abenduaren 10eko BOE, 295 zk.).



arrazoi tekniko zalantzagabeen ondorioz merkatuko eragile ekonomikoen kopurua murriztu egin delako.

Proposatutako neurri honek lehiari jartzen dizkion mugak justifikatuta geratzen dira gizarteratze- eta osasun publikoko arrazoi indartsuengatik.

Egiaztatuta geratzen da proposatutako zerbitzua eskainiko zaien biztanleek ezin dutela biztanleentzat funtsezkotzat jotzen den hortzetako osasun-zerbitzu arrunta jaso.

Elkargokideen parte-hartze altruistak –prezio sinbolikoan emango dute zerbitzua, merkatuko prezioan baino askoz ere baxuagoan– ahalbidetzen du zerbitzua ematea. Baldintza horietan, ekimen honetan parte hartzeko konpromisoa hartu duten profesionalen txanda bat izateak aukera ematen du ekimena gizarte-egoera kaskarretan dauden biztanle gehienengana iritsiko.

Ondorioz, zerbitzua talde jakin bateko pertsoneri zuzentzea, elkargokideen artean banaketa egitea eta prezio jakin bat finkatzea –merkatukoa baino askoz ere baxuagoa– beharrezkoa dela jo daiteke lortu nahi den helburua lortzeko.

7. Gogoratu behar da, azkenik, beste klinika solidario batean artatu dituzten pazienteak zerbitzu honetan ez hartzeko fundazioak jarritako baldintza antolaketa- edo osasun publikoko arrazoiek justifikatzen dutela.

3. Proporzionaltasuna

8. 17/2009 Legearen 5. artikulua haxe dio proporzionaltasunari buruz: hartutako neurria dela tresnarik onena lortu nahi den helburua lortu ahal izateko, ez baitago emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen hori baino murrizketa-maila leunagorik duen neurririk.

9. Zenbait elementu hartu behar dira kontuan proposatutako neurriaren proporzionaltasuna aztertzeko orduan:

- Klinika solidarioaren eta merkatuko prezioen arteko aldea.
- Pazienteek zerbitzu hau eskura izateko duten zailtasuna, sistema honek duen hutsuneengatik (ez du osasun publikoak estaltzen).
- Profesionalek diru-irabazi asmorik gabe ematea zerbitzua, gizarte-zerbitzu gisa.
- Hartzaileak hirugarren batek hautatzea; hau da, gizarteratzeko zerbitzuak gauzatzeko gaitasun onartua duen hirugarren batek.
- Zerbitzua behar bezala antolatuta egotea; izan ere, ekimenean parte hartu nahi duten elkargokideen banaketa egitea eskatzen du.



Horregatik guztiagatik hau ondorioztatu daiteke: neurriak proposatzen dituen murrizketak proportzionalak direla lortu nahi den helburuarekiko, eta ezin dela helburu hori lortzeko murrizketa-maila leunagorik duen neurririk aurreikusi.

III.- Ondorioak

BAKARRA: LEAren eskuetan dauden datuen arabera, adierazi behar da ez dagoela arrazoirik esateko Gipuzkoako Haginlarien Elkargoak proposatutako neurriak Gipuzkoako gainerako hertz-zerbitzuen merkatuko lehiari eragin diezaiokeenik. Dauden klinika solidarioetan tratatu beharreko pazienteen aukeraketa antolaketa eta osasun publikoko arrazoiaren arabera egin behar da.